

Egia biktima guztientzat

Hausnarketa prozesuaren ondorioak

Egiari Zor Fundazioa
2020ko maiatza

1

Sarrera

Egiari Zor Fundazioaren baitan izandako hausnarketa prozesuaren ondorioak gizarteratzea da dokumentu honen helburua.

Lehenik hausnartu genuena izan zen egia ezinbestekoa dela, erabat, biktima orok dituen beste eskubide guztiak gauza daitezen: aitortza, justizia, erreparazioa eta haien biktimazioa errepikatuko ez denaren bermeak.

Tamalez, Euskal Herriak oso aspalditik pairatzen duen gatazka politikoaren kasuan, espainiar eta frantziar Estatuak oso jarrera negazionista dute eragin dituzten milaka biktimekiko: gehien-gehienei ukatu egiten dizkiete egia eta aitortza. Eta, horrenbestez, beste eskubide guztiak ere zeharo ukatzen dizkiete.

Horregatik, gure hausnarketa prozesuaren xede nagusia hau izan zen: proposamen positibo bat egiten saiatzea, biktima horiek lehenbailehen jaso ditzaten aipatu berri diren eskubide guztiak, beraien beharrei arreta berezia eskainiz.

Prozesuan atera genuen ondorio garrantzitsuenetako bat izan zen proposamen positibo horren oinarria hainbat mekanismo berritzailearen erabilera izan behar zuela. Estatuak kosta ahala kosta ukatzen duten egia osoa argitara ateratzea ahalbidetuko duten mekanismo berritzaileak, hain zuzen ere.

Azkenik, prozesu horren emaitza bideo bateanⁱ jaso genuen, non biolentzia mota ezberdinak jasandako Estatuaren hamar biktimek haien hausnarketak partekatu zituzten.

2

Egiari Zorren lana eta helburuak

Egiari Zor Fundazioa 2012ko apirilaren 22an sortu zen eta Euskal Herriko gatazka politikoaren testuinguruan frantziar eta espainiar **Estatuen indarkeria jasan duten biktimen eskubideen alde** lan egitea du xede.

Fundazioan parte hartzen dugunok biktima horien senideak gara, hildakoak badira, eta zauritu, torturatu edo beste biolentzia motaren bat jasan dugunok. Sektore zabala eta plurala gara, ikuskera anitzeko pertsonak elkartzen dituenak.

Urteetan biktima gisa aitorten ofizialik jaso ez dugulako sortu ginen: Estatuak monopolizatutako datuen artean, ez ginelako aintzat hartuak. Hortaz, elkartzen gaituena da guztiok jasan izan dugula Estatuaren bortxa, modu batean edo bestean, eta egundo inork ez duela bere gain hartu horren erantzukizunik.

Gure sufrimendua akuilu bihurtzen saiatzeko elkartu ginen, eta gure laguntza emateko, ETAk 2011n behin betiko su etena iragarri ostean, Euskal Herrian zabaldu den bake prozesu berriaren testuinguruan.

Gatazkaren arrazoiak eta ondorioak politikoak direnez, akordio politikoan oinarrituriko konponbide demokratiko baten alde lan egiteko bokazioa dugu.

Hau da gure konpromiso nagusia: elkarbitzita, giza eskubideak eta bakea oinarri izango dituen **gizarte berri bat eraikitzen laguntzeko lan egitea.**

Euskal gizarteak ez zuen jakin geldiarazten urte luzez bizi izandako giza eskubideen urraketa etengabea. Huts egin zuten elkarrizketa, akordio eta negoziazio bide guztiek.

Eragotzi egin behar dugu halakorik inoiz errepika dadin. Hori da gure konpromiso etiko nagusia.

Hauek dira gure lana hezurmamitzen duten printzipioak:

- **Ezinbestekoa da gatazka ikuspegi integral batetik jorratzea eta hori posible egiteko baliabideak eskaintzea:** heriotzek, exekuzio estrajudizialek, desagertze behartuek, tratatu txar eta torturek, mehatxuek eta bestelako sufrimendu guztiek hamaika drama indibidual eta kolektibo eragin dituzte. Tragedia hori bere osotasunean onartu eta erreparatu beharra dago.
- **Edozein indarkeria mota erabiltzearen kontrako jarrera irmoa dugu:** inoiz ez zen halakorik gertatu behar. Hori bai, ez da ahaztu behar oraindik ere indarrean dirautela zenbait biolentzia motek. Horien guztien behin betiko amaiera exijitzen dugu.
- **Beharrezkoa da kontakizun poliedriko eta anitza,** betiere egia osoaren narrazioa bermatuz.
- Arbuiatu egiten dugu biktimak interes alderdikoi edo partikularrak defendatzeko erabiltzea.
- **Biktimen arteko kategorizaziorik ez:** giza eskubideen urraketa antzekoa denean, erantzuna ere halakoa izatea exijitzen dugu.
- **Biktima guztien aitortza eta erreparazioa erraztuko luketen mekanismo berritzaileak probatu eta martxan jartzearen aldekoak gara, ez dugulako uste** justiziaren helburu nagusia, eredu tradizionalen gertatzen den legez, zigorra ezartzea izan behar duenik. Zentzu horretan, egia osoa argitara ateratzea xede nagusi duen justizia aldarrikatzen dugu eta justizia-ekintza gisa ulertzen dugu egia ezagutua eta ofizialki onartua izatea.

Gure lan ildo nagusiak lau dira:

1. Gaur egun arte euskal gatazka politikoaren biktimek jasan duten **kategorizazioa gainditzea** eta giza eskubideen urraketa berdinak jasan dituzten pertsona guztiei **aitortza maila berdina ziurtatzea**. Horretarako, biktimen zerbitzura jartzen ditugu dauden legezko baliabideak (tramitazioetan lagunduaz, aholkularitza emanaz...) eta lan egiten dugu haien aitortza posible egin dezaketen mekanismo berritzaileak martxan jartzeko.

2. Ezkutuan dauden egiak itzaletik argira ateratzea. Gatazkaren baitan bizi izandako sufrimendu askok eta askok ezkutuan diraute oraindik, ezagutzen ez ditugulako edo nahita estaliak izan direlako. Horiek guztiak argitara ateratzeko egiten dugu lan, gertatu den guztia ezagutu eta ezagutzera emateko. Horrela bermatuko baitugu bizi izandako sufrimendua etorkizunean berriro ez dela errepikatuko. Horretarako, kasu zehatzen inguruko hitzaldi sortak antolatu eta ikerlanak burutzen ditugu.

3. Bizikidetzaren eraikitzearen justizia eredu berria beharrezkoa dela aldarrikatzea: gatazka politikoaren ondorio guztiak konpondu eta gaindituta dauden egoera bat erdiesteko, ezinbestekoa da sufrimendu gehiago ez eragitea. Horregatik, uste dugu beharrezkoa dela zigorra beharrean egia helburu duen justizia eredu alternatibo bat eraikitzea, gatazka gehiago luza ez dadin, honen ondorioak betikotu ez daitezten eta konponbideak oztopo gehiago izan ez dituzten. Xede hori lortzeko, euskal gizarteko arlo instituzional eta sozialen konpromiso sendo eta zabala behar da. Hausnarketa hau gizarteratzen saiatzen gara gure eguneroko jardunean.

4. Gure biktima-eragileen inpunitatea publikoki salatzea: kolpatu gintuzten krimenen atzean zeuden arduradun zuzenak eta zeharkakoak nortzuk ziren ezagutzeko, ezagutzera emateko eta publikoki salatzeko egiten dugu lan, kasu gehienetan, oraindik ere inork ez baititu bere gain hartu ardura horiek.

3

Hausnarketa prozesuaren testuingurua

Giza eskubideen urraketa berdinak jasan dituzten biktima guztiek, inolako salbuespenik gabe, lorbide berbera izan behar dute dagozkien eskubide guztiak eskuratzeko: egia, aitortza, justizia, erreparazioa eta haien biktimazioa errepikatuko ez denaren bermeak. Printzipio horrek laburbiltzen du egokien zein den Egiari Zor Fundazioaren helburu nagusia. Izan ere, Estatu biktima gehienei ukatu egin baitzaizkie, tamalez, eskubide horiek guztiak.

Horren arrazoia argia da: kategorizatu egiten dira giza eskubideen urraketak, eragilea nor izan denaren arabera. Horrela, garrantzia edo larritasuna kendu nahi izaten zaie erabat gaitzesgarriak diren urraketa batzuei, hain zuzen ere, urraketa horien egilea Estatua denean; hau da, herritarren eskubideen bermatzaile izan behar lukeena.

Ondoren, hainbat datu emango ditugu, ondo irudikatzen dutelakoan zein den bizi dugun egoera: batetik, frantziar eta espainiar Estatuak 1960tik hona zenbat **hildako, zaurituriko eta torturaturiko** biktima eragin dituzten Euskal gatazka politikoaren testuinguruan; bestetik, biktima horietatik zein gutxik **jaso duten**, biktima gisa, **nolabaiteko aitorpen ofiziala**.

Hona hemen aipaturiko datuakⁱⁱ:

HERIOTZAK

Bi Estatuak 366 hildako biktima eragin dituzte.

1. **Estatuetako agenteek** eragindako heriotzak: 219
2. **Gerra zikinak** eragindako heriotzak: 79
 - GAL: sigla erabiliz eraildakoak 29
 - Beste sigla batzuk erabiliz (BVE, Triple A, GANE...) eraildakoak: 38.
 - Erreibindikatu gabeko erailketak: 8
 - Behartutako desagertzeak: 4
3. **Salbuespenezko neurri politikoaren aplikazioak** eragindako heriotzak: 64
 - Dispersioak eragindako heriotzak: 16.
 - Salbuespenezko espetxe politikak eragindako heriotzak: 35
 - Deportazioak eragindako heriotzak: 9
 - Bere buruaz beste egitera behartuak: 4
4. **Eskuin muturreko "inkontrolatuek" eraildakoak: 4**

Gainera, kontuan hartu behar da gutxienez beste 115 pertsonak ere bizitza galdu dutela gatazka politikoarekin harreman zuzena izan duten gertakarietan (enfrentamenduak, istripuak...).

Nazioarteko legediaren arabera, azken horiek jasandako sufrimenduak ez dira izan giza eskubideen urraketak. Hala ere, Egari Zorren iritziz, Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa behingoz gainditzeko, ezinbestekoa da heriotza horiek eragindako sufrimendua ezagutu eta aintzat hartzea.

Bada, espainiar eta frantziar Estatuak eragindako 366 hildako biktima horietatik, **88k besterik ez dute jaso nolabaiteko aitorten ofiziala**. Hau da, %24ak besterik ez.

- Bi Estatuak agenteez eragindako 219 heriotzetatik 35 izan dira ofizialki onartuak, "polizia-indarkeriaren biktima" gisa, Eusko Jaurlaritzaren 107/2012 Dekretuaren bidez (1960 eta 1978 bitartean eragindako biktimei dagokie soilik dekretu hori),. Beste 5 hildako "terrorismoaren biktima" gisa onartu ditu Espainiako Barne Sailak, baina zalantzazkoa da nor erail zituen. Beraz, biktima hauen artean nolabaiteko aitorten ofiziala jaso dutenak guztira %18a besterik ez dira.
- Gerra Zikinak eraildako 79 pertsonetatik, espainiar Barne Ministerioak 46 onartu ditu "terrorismoaren biktima" gisa, espainiar Estatuak 32/1999 eta 29/2011 Legeak eta Euskal Autonomi Elkarteak 4/2008 Legea aplikatuz. Hau da, eraildakoen %58a. Bi kasutan ez dago argi nor izan zen egilea.
- Salbuespenezko neurri politikoak aplikazioak eragindako 64 heriotzetatik bakar batek ere ez du aitorten ofizialik jaso.
- Eskuin muturreko "inkontrolatuak" eraildako 4 pertsonetatik bakarrik bi onartu ditu espainiar Barne Ministerioak "terrorismoaren biktima" gisa, 29/2011 Legea aplikatuz.

TORTURATUAK

Eusko Jaurlaritzak enkargaturiko ikerlan batekⁱⁱⁱ sinesgarritasun osoa eman die Guardia Zibilak, Polizia Nazionalak eta Ertzaintzak Euskal Autonomia Elkartearen praktikaturiko milaka tortura kasuri. Zehazki, **4.113 izan dira kasuak eta 3.415 tortura eta tratu txarrak jasandako pertsonak**, batzuek behin baino gehiagotan jasan baitituzte. Gainera, ikerlanaren arabera, "zifra horiek kaltetuen datu errealairen azpitik daude".

Bestalde, Euskal Herri osoan gertaturiko tortura eta tratu txarren ikerketa egiten ari den Euskal Memoria Fundazioak, orain arte, 4.643 pertsonen jasandako 5.567 kasu egiaztatu ahal izan ditu.

Hala ere, 103 pertsonen besterik ez dute jaso nolabaiteko aitortpen ofiziala. Beraz, Eusko Jaurlaritzak enkargaturiko ikerlanean jasotako %3ak besterik ez. Horra hor, Estatuak, batez ere espainiarrak, duten jarrera negazionistaren beste froga nabarmen bat.

- Aurkezturiko salaketa judizialeatik, oso gutxi lortu dute torturazailen kondena (gainerakoak artxibatu egin dituzte) eta bakarrik 31 pertsonen jaso dute, sententzia judizial horien arabera, "torturaren biktima" gisa aitortpen ofiziala. Ezta %1ak ere (Iturria: EAEn gertaturiko tortura kasuei buruzko ikerlana).
- Bestalde, "Ahanzturatik ateratzen" txostenean^{iv} jasotzen den moduan, Eusko Jaurlaritzaren 107/2012 dekretuaren bidez osaturiko Balioztatze Batzordeak 72 pertsonen jasandako tratu txar eta torturak balioztatu ditu. 1960 eta 1978 bitartean Euskal Autonomi Elkartearen gertaturiko kasuei dagokie soilik dekretu hori.

Nazioarteko bi erakunde garrantzitsuk (Giza Eskubideen Europako Auzitegiak eta Nazio Batuen Erakundeak) 12 aldiz kondenatu dute espainiar Estatuak tratu txarrak eta torturak zeharo debekatzeko dituzten tratatuak behin eta berriro urratzeagatik.

ZAURITUAK

Oraingoan, ez da egin ikerketa zehatzik jakiteko zenbat izan diren, orokorrean, frantziar eta espainiar Estatuaren indarkeriaren eraginez zaurituriko biktimak. Eusko Jaurlaritzaren datuen arabera^v, 1960 eta 2013 bitartean, segurtasun indarrek 746 pertsona zauritu zituzten Euskal Autonomi Elkartearen, eta talde parapolizial edo eskuin-muturrekoek 426.

Hori bai, errealitatea hori baino askoz zabalagoa da. Adibide gisa, egun bakar batean, 1976ko martxoaren 3an, Gasteizen gertaturiko sarraskian, 60 izan ziren larri zaurituriko pertsonak 15 minututan (horietatik 44k bala-zauriak jaso zituzten).

Eusko Jaurlaritzaren 107/2012 Dekretuaren bitartez sorturiko Balioztatze Batzordeak 1960 eta 1978 bitartean **zaurituriko 66 pertsonen kasuak balioztatu ditu. Horietatik 55ek su-armen zauriak jaso zituzten eta gainerakoek gomazko balenak. Bistan denez, hori errealitatearen zati txiki bat besterik ez da.**

Estatu biktimek jaso duten aitorten ofizialaren maila oso txikia da eta epaileek zein agintarietarako ez dute egiten injustizia hori zuzentzeko. Alderantziz, sarritan oztopatu edo eragotzi egin dituzte egia argira ateratzea eta biktimen aitortza erraztea xede zuten ekimenak. Hona hemen adibide batzuk:

- Nafarroako Foru Komunitateko 16/2015 Legea errekurritu ondoren, bertan behera uztea. Eskuin muturreko taldeek eta funtzionario publikoek eragin dituzten motibazio politikoko biktimak onartu eta erreparatzea zen Lege horren helburua.
- Bere horretan mantentzea geroago 28/1978 Legearen bidez partzialki aldatu zen Sekretu Ofizialen 9/1968 Legea zeinak bigarren artikuluan dioen gai klasifikatuak direla Legeak hala izendaturikoak eta “, Estatuaren segurtasuna eta defentsa kaltetu edo arriskuan jar ditzaketen informazio, dokumentu, datu eta objektuak, baldin eta baimenduak ez dauden pertsonak ezagutzen badituzte”. Beraz, murrizketa bat da. “Estatu arrazoiak” argudiatuz, “segurtasun nazionala” deitzen duten hori arriskuan jar dezaketen informazioen zabalpena mugatzea xede duen murrizketa. Azken batean, biktimek egia osoa ezagutzeko duten eskubidea mugatzen duen murrizketa bat da.
- Ikerketa judizial urriak eta oztopoz beteak: sarriegi desagertu izan dira perituen frogak tirabirez gainezka zeuden ikerketa judizialetan, edota, Estatu indarkeriak giza eskubideak argi eta garbi urratu dituenetan, “bertsio ofizial” deiturikoetan oinarrituriko epaiak eman izan dira, gertaturikoa zurutuz.

Bestalde, ofizialki onarturiko biktima batzuei ematen zaizkien kalte-ordainei dagokionez ere, diskriminazio nabarmena gertatzen ari da. Hasteko, Estatu biktima gehienak ez dutelako aitorten ofizialik jaso, baina jaso dutenetan ere, ez da eten diskriminazioa.

Adibidez, espainiar Estatuak uko egin dio terrorismoaren biktima gisa onartuak daudenei eman beharreko kalte-ordainak parekatzeari, 29/2011 Legeak agintzen duen moduan. Zer esanik ez Estatu terrorismoaren biktimak direla beti kaltetuak.

Gainera, Estatu krimenek izan duten inpunitate maila ukaezina da, ondorengo adibideetan ikus daiteken moduan:

- Askotan, Estatuak ezkutatu eta ukatu egin dituzte beraien agenteek egindako giza eskubideen urraketa larriak. Torturaren aurrean mantentzen duten jarrera negazionista da horren adibide nabarmenena. Beste batzuetan, berriz, Estatu-terrorismoa ezkutatzeko pantailak besterik ez ziren ustezko hainbat erakunderi (ATE, BVE, GAL...) egotzi dizkiete giza eskubideen urraketa larri horiek. Horren adibide garbiena Gerra Zikinarekin gertatua izan da.
- Estatu krimenen arduradun gehien-gehienek erabateko inpunitatea izan dute eta jarraitzen dute izaten. Eta kondena judizialak egon diren kasu bakanetan, ez dituzte zigorrak inolaz ere bete beste biktima-eragile batzuek bezala, oso pribilegio nabariak izan baitituzte. Adibidez, Intxaurrendoko kuartelean buru zela Lasa eta Zabala, bahitu, torturatu, erail eta kare bizian lurperatzeagatik kondenatu zuten Enrique Rodriguez Galindok, kartzela barruan bizi baldintza eskandalagarriak izateaz gain, 4 urte besterik ez zituen egin espetxe barruan, 75 urteko zigorra jaso bazuen ere. Eta kondena berbera jaso zuen Julen Elgorriaga Gobernadore Zibilak ez zituen egin ezta 14 hilabete ere.
- Indultuak, kondekorazioak eta:gradu igoerak: funtzionario asko eta asko salbuetsi egin dituzte giza eskubideak larriki urratzeagatik zegozkien erantzukizunetatik, horrela krimen horiek erabateko inpunitatez estaliz, eta gainera dominak eman dizkiete eta graduz igo jarduera horien harira. Adibidez, kondenaturiko torturazailerik gehienak indultatu egin zituzten eta, bai haiei, bai tortura kasuetan inplikaturiko beste agente askori, ez dizkiete kendu jaso zituzten dominak. Antonio Gonzalez Pacheco "Billy el Niño" torturazailerik frankista ezagunarekin gertatua lekuko.

4

Geure buruari egin genizkion galderak

1. Nola lortuko dugu bateratzea giza eskubideen urraketa guzti-guztien ezinbesteko aitortza eta urraketa horiek eragindako biktima guztiek beren eskubideak gauzatu ahal izatea, gatazka politikoaren ondorio guztiak gainditzea helburu duen biolentziatik bakerako trantsizio egoera batean?
2. Gure iritziz, zigor justizia askatasun-gabetze gisa aplikatzeak, zalantzarik gabe gatazkak eragindako ondorioak eta sufrimenduak betiketzea al dakar berarekin, edozein kasutan?
3. Uste al dugu Estatu krimenen arduradunak beste biktima-eragile batzuen baldintza beretan kondenatu eta 20, 30, 40 urtez espetxeratu behar direla? Gatazka politikoaren ondorioak konpondu edo gainditu ahal izateko, hori ere beharrezkoa dela uste al dugu?
4. Ezerk ez digu galdu duguna itzuliko, baina... lagundu al dezakegu gatazkaren ondorio guztiak konponduta eta gaindituta geratuko diren egoera bat eraikitzen, indarkeria politikoak eragindako ondorio eta sufrimendurik gabeko gizarte bat utziz?

5

Erantzunak

Gure sorrera dokumentuak^{vi} dioen bezala, Egiari Zor Fundazioko partaide garen Estatu biktimen bokazioa da ekarpen positiboak egitea, ETAk bere jarduera armatua behin betiko utzi ondoren, Euskal Herrian irekitako bake-prozesuaren testuinguruan.

Gure ustez, bake-prozesua arrakastaz burutu dadin, konponduak eta gaindituak geratu behar dute, bai konfrontazio armatua ekarri zuen gatazka politikoaren sorburu diren arrazoiak, bai konfrontazio horrek eragindako ondorioak.

Xede hori lortu nahian gabiltzanez, bistan da ez gatozela inolaz ere bat gatazkak eragindako giza ondorioen zati bat konpontzeko bide bakarra zigor-justizia sine qua non aplikatzea dela. Hau da, Estatuarekin zerikusirik ez duten beste biktima-eragile batzuei aplikatzen zaizkien baldintza berdinetan, askatasun-gabetze zigorak aplikatzea. Uste dugu gure senideen hilketen erantzuleak 20, 30, 40 urtez kartzelara bidaltzeak ere sufrimendu gehiago eragitea ekarriko lukeela, eta konfrontazioaren ondorioak luzatzea, eta horrek talka egiten du, aurrez aurre, gure bokazioarekin.

Estatu biktimen kasuan, benetako erronka da pertsona horiei dagozkien eskubideak ematea (egia, aitortza, justizia, erreparazioa eta haien biktimizazioa errepikatuko ez denaren bermeak), eta, horrela, jasaten duten kategorizazio eta diskriminazio-egoera gainditzea.

Hori bai, oinarrizko eskubidea, gainerako guztiak posible egiten dituena, egiarako eskubidea da.

- Egia da sufrituriko tragedia berriro gertatuko ez denaren berme bakarra. Gertaturikoa ezagutu eta ezagutzera emanez lortuko dugu berriro errepikatzerik izan ez dezan.

- Gatazka ikuspegi integral batetik jorrazteko oinarritzko elementua ere bada. Ikuspegi ugari daude Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoa interpretatzeko orduan: gatazka eragin zuten arrazoiak, zergatiak, etab. Gakoa ikuspuntu horien guztien arteko bizikidetzeta eta errespetua da. Baina, hori lortzeko, bermatu egin behar da kontakizun anitzetan islatzen diren ikusmolde anitz horiek gertatu den guztia hartuko dutela kontuan; hau da, gertaturikoaren irudi osoa hartuko dela kontuan. Eta hori egiaren bidez baino ezin da egin.
- Gainera, hain anitzak diren biktimen ezagutzak, aitortzak eta erreparazio osoak ere egian dute oinarri.

Beraz, Egiari Zorrek uste du egia dela zauriak ixten dituen; sufritu dugun tragedia berriro ez errepikatzea ahalbidetzen duena; milaka eta milaka pertsonak bizi izan duten mina onartzen duena; biktimak erreparatu eta duintzen dituen.

Horregatik guztiagatik, guretzat, egia justizia da. Hori izan zen hausnarketa-prozesuaren ondorio nagusia: uste dugu beharrezkoa dela zigorra helburu nagusi izango ez duen justizia-eredu alternatibo bat eraikitzea, gatazka gehiago luzatuko ez duena, bere ondorioak betiketuko ez dituen eta konponbidea oztopatuko ez duena.

Gatazka politiko armatu bakoitzak bere ezaugarriak eta berezitasunak ditu, eta, gatazka konpondu nahi bada, aldeek adostu egiten dute aplikatu beharreko justizia-eredua. Eta adostasunera heltzeko negoziatu egiten dute, elkarri lotuak dauden bi oinarritzko gauza kontuan hartuz: batetik, beharrezkoa dela krimenak zigorrik gabe ez geratzea; bestetik, justizia-prozesuak bakerako trantsizioa burutzeko balio behar duela.

Gure kasuan, alde bakarreko bake-prozesu batean gaude. Izan ere, espainiar Estatuak, gatazka politikoa konponbidean inplikatu beharrean, oztopoak jartzen jarraitu baitu, eta ez du inolako trantsizio-justiziarik aplikatu nahi.

Beraz, kontuan hartuz trantsizio-justiziaren bat aplikatzea ezinezkoa dela (ez baitago horretarako Estatuaren ordezkatu duen baliozko solaskiderik) eta Estatuaren posizioa pribilegiozko dela, justiziaren gaineko monopolioa duelako, Egiari Zorrek uste du beharrezkoa dela ohiko justiziaren ordezkotako justizia-eredu edo mekanismo bat diseinatzeko gaitasuna garatzea. Hain zuzen ere, egungo egoeran onargarri, errealista, komenigarri, asimilagarri eta posible gisa hartuko den mekanismo bat.

Testuinguru horretan, erabakigarria da egiarako eskubidea.

Lehenik, eskubide indibidual gisa, biktimek sufrituriko krimenei buruz den-dena ezagutzeko eskubidea baitute; batez ere, krimen horien erantzuleak nortzuk izan ziren jakiteko eskubidea. Eta baita eskubide kolektibo gisa ere, gizarteak eskubidea baitu krimen horien zergatiaz egiazko kontakizun bat izateko.

Egia oinarritzko baldintza da biktimen gainerako eskubideak berma daitezen: egiarako eskubidea hertsiki lotua dago justiziarako eskubidearekin, egiarik gabe, ezin baita justizia aplikatu, eta, aldi berean, justiziarik gabe, ez dago erreparaziorik.

Gainera, egia da krimenak errepika ez daitezen oinarritzko baldintza; hain zuzen ere, bakarrik iragana ezagututa jarri ahal izango baititu martxan gizarteak horrelako krimenak berriro gertatzea eragotziko duten mekanismoak. Horregatik, egia garrantzi bereziko tresna da boterearen arbitrariotasunaren aurkako borrokan. Batez ere, botereak bere krimenen zigorgabetasuna lortzeko ahanzturaz egin dezakeen zoritxarreko erabileraren aurka borrokatzeko orduan.

Gure kasuan, hamarkada luzetan espainiar eta frantziar Estatuak eragindako milaka biktimek bizi/jasan izan dituzten errealitateetan zehar (ukazioa, negazionismoa, gertaturikoa ezkatzea...) ibilbide luzea egin ondoren, eta egia ezagutua eta ofizialki onartua izan dadin hainbat bitarteko eta mekanismo praktikan jarri ostean, biktimengan duten eragin positiboa ikusi dugu.

Izan ere, estrajudizialak izan arren, instituzionalak diren eta, nolabait, egia lorarazten duten mekanismo horiek biktima erreparatu eta duindu egiten baitute. Eta egia argitara ateratzea, ezagutua eta modu ofizialean onartua izatea, justizia-ekintza bihurtzen da (adibideak: Eusko Jaurlaritzaren 107/2012 Dekretuaren bidez onarturiko biktimen poza. Eta torturatuena, Euskal Autonomi Elkartearen izandako tortura kasuei buruzko ikerlana argitaratu ondoren).

Hau da, biktimen aitortza eta erreparazioa xede duten mekanismo horiek, nahiz eta biktima-eragileak zigortzeko gaitasunik ez izan, biktimak erreparatzea eta, neurri handi batean, duintzea lortzen dute.

Zentzu horretan, egia mota ezberdinak bereizi ditzakegu:

- Alde batetik, EGIA JUDIZIALA dago, hau da, ustezko biktima-egileen aurka buruturiko prozesu judizialen bidez lorturiko EGIA OFIZIALA, epaile batek espresuki adierazia edo prozeduratik edo erabaki judizialek ondorioztatua. Egia judizialak eta benetan gertatuak ez dute beti bat egiten.
- Bestetik, EGIA ESTRAJUDIZIAL INSTITUZIONALIZATUA deitzen dena dago. Erakundeek bereziki sortutako espazio edo ekimenen bidez berreraikitako egia da. Ekimen horiek, instituzionalki onartuak izanik ere, ez dute izaera judizialik, ezta bertatik erator daitezkeen funtziorik ere. Horra, adibide gisa, torturak Euskal Autonomi Elkartearen izandako dimentsioaren egia instituzionalizatu duen lehen aipaturiko ikerlana.
- Azkenik, INSTITUZIONALA EZ DEN EGIA SOZIALA dago: instituzionalak ez diren historialari, kazetari, literato, gizarte-zientzialari, lekuko eta antzekoek buruturiko estrategien bidez lorturiko egia da. Memoria kolektiboa babestea eta egia berreraikitzea helburu duten estrategien bidez lorturiko egia da.

Kontua da, egia estrajudizial instituzionalizatuak, eta baita egia sozialek ere, erreparazioa ekar dezaketela biktimentzat. Bereziki, lehenek eta, horregatik, egia ezagutua eta modu ofizialean onartua izatea justizia-ekintza gisa uler daiteke.

Guk hala ulertzen dugu, baina horrek ez du esan nahi uko egiten diogunik biktima orok ditugun eskubideei: gure biktima-eragileek egindakoa aitortzea, beraien erantzukizunak beraien gain hartzea, zigortuak izatea eta biktimizioa errepikatuko ez dela bermatzen laguntzea (gertaturikoa ezagutzea baita errepikatuko ez denaren abiapuntua)..

Ez du esan nahi gure biktima-eragileen identifikazio publikoari uko egiten diogunik, ezta bere garaian eman zizkieten, eta prima ekonomikoak, biziarteko pentsioak eta abar dakartzaten, dominak, galoiak, maila-igoerak eta beste ohore batzuk kendu behar ez zaizkienik ere. Era berean, ez du esan nahi bidea ixten diogunik ikerketek edo proba berrien agertzeak ekar litzaketen prozesu judizial penalei...

Esan nahi duena da gure xede nagusia ez dela gure sufrimenduaren erantzuleak kartzelara bidaltzea, baizik eta gure egiarako eskubidea exijitzea. Esan nahi du gure gogo bizia, batez ere, egia osoa ezagutua eta ofizialki onartua izatea dela, aipaturiko mekanismo berritzaile horien bitartez.

- i Egia, justiziarako mekanismoa: <http://egiarizor.eus/eu/egia-justiziarako-mekanismoa-1>
- ii Xehetasun gehiagorako: "Estatuek praktikara eramandako indarkeriak eragindako biktimen aitortpen-mailari buruzko txostena":
<http://egiarizor.eus/files/posts/2020/c44fc73db050398fb7b8f7fcb9ecad61ez-estatuaren-biktimak-zenbakitan-eus-2020-compressedpdf.pdf>
- iii [https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/10779/INFORME_FINAL -
_investigacion_tortura_y_malos_tratos_18-12-2017.pdf](https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/10779/INFORME_FINAL_-_investigacion_tortura_y_malos_tratos_18-12-2017.pdf)
- iv https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/9854/TXOSTENA_ahantzuratik_ateratzen.pdf
- v https://www.irekia.euskadi.eus/uploads/attachments/3214/informe_base_es.pdf?1371196800
- vi Egjari Zor Fundazioaren sorrera dokumentua:
<http://egiarizor.eus/files/posts/2019/5e63a43d694e872520d6dfa87496988fmanifestua-eupdf.pdf>